


EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA

EAEko ekonomiaren testuingurua


Munduko ekonomiak, oro har, hirugarren hiruhilabetekoaren antzeko hazkundea lortu zuen 2012ko azken hiruhilekoan. Hala ere, portaera kontrajarriak hauteman dira ekonomia eremu batzuetan eta besteetan. Izan ere, garatutako herrialdeen multzoak urte osoan zehar erakutsi zuen moteltzeko joera biziari jarraipena eman zion, baina garapen bidean dauden herrialdeek, buruan Txina eta India zeudelarik, hazkunde erritmoa puntu erdi bat inguru areagotzea lortu zuten.

Munduko ekonomia. Barne produktu gordina.
Urte arteko aldakuntza tasak


ELGE




Europar Batasuna 27



Txina



India



Iturria: Eurostat, ELGE eta NDF.

Txinako ekonomiaren bizitasuna apaldu egin zen 2012ko lehen hiruhilekoetan. Hala ere, laugarren hiruhilekoan Txinak amaiera eman zion BPGaren zazpi hiruhilekoko moteltzeari eta %7,9ko gehikuntza tasa lortu zuen. Hori horrela izanda, urte osoko batez besteko hazkundera %7,8an kokatu zen, 1999. urtetik inoiz izan duen hazkunde tasarik txikiena baita. Urritik abendura bitarteko epealdian ezagutu zuen gorakada urte hasieran onartu ziren zerga eta moneta politiken ondorioa da. Inflazioari dagokionez, azken hilekoetan prezioen indize orokorra kontrolpean edukitzea lortu dute eta 2013ko otsailean Txinako KPI indizea %3,2an estimatu zen. Beste aldetik, Indiako BPGaren hazkundera %3,9ra iritsi zen, hau ere aurreko datuaren gainetik dagoela, baina urteko batez bestea (%4,5) 2011koa baino nabarmen txikiagoa da. Oraindik nolabaiteko ahultasuna hautematen da nekazaritzako eta industriako ekoizpenean, baita barne kontsumoaren eta atzerriko inbertsioaren jaitsiera bat ere. Ekoizpenaren beheranzko joera hori inflazioaren presio handi batekin gertatu zen eta kontsumoko prezioen indizea %11,6 igo zen 2013ko urtarrilean.

AEBetan, ekonomiak bizitasuna galdu zuen 2012ko laugarren hiruhilekoan eta urte arteko hazkunde tasa %1,6an kokatu zen. Moteltze horren arrazoiak gastu publikoaren jaitsiera, batez ere defentsaren arloan, eta izakinen aldakuntzaren murrizketa izan ziren, urteko azken hilekoetan BPGaren gehikuntzari indarra kendu baitzioten. Europako atzeraldiak eta ekialdeko kostaldea kolpatu zuten ekaitza bortitzek portuetan eragin zituzten arazoez esportazioak kaltetu zituzten. Aitzitik, familien gastuak portaera hobea erakutsi zuen, kontsumitzaileen igurikimen baikorrak islatzen baitituzte. Lan merkatuari dagokionez, langabezia tasa hamarren batzuk jaitsi zen eta 2013ko otsailean %7,7an kokatu. Zertxobait murriztu bada ere, ekonomiaren hazkundera oraindik oso urrun dago langabezia tasa nabarmen jaisteko beharrezkoa izango zen erritmotik. Beste aldetik, estatubatuar inflazioa %2an kokatu zen otsailean.

2012ko azken hilekoetan, Japoniak urteko lehen erdikoa baino balantze okerragoa aurkeztu zuen kontu ekonomikoetan. Bertako BPGa %0,3 baino ez zen hazi 2012ko azken hiruhilekoan aurreko urteko epe beraren aldean. Kontsumo pribatuak eta higiezin inbertsioak bilakaera ona izan zuten arren, enpresen inbertsioak beherakada handia jaso zuen eta ekonomia orokorraren geldotzea eragin zuen. Esportazioak ere jaitsiera bizi batean murgildu ziren, munduko ekonomiaren apaltzearen ondorioz. Beste aldetik, 2012ko azken hilekoetan eta 2013ko lehenengoetan, prezioen jaitsierak bere horretan jarraitu zuen. Hain zuzen ere, 2013ko urtarrilean inflazioa %-0,3an kokatu zen. Lan merkatuari dagokionez, langabezia tasak %4,0aren inguruko maila batean jarraitu zuen aldaketarik gabe.

Europar Batasuneko multzoan, urte osoko tasa okerrean jaso zen, urte arteko tasan, ekonomia berriro atzeraldian sartu duen moteltzeko joera garbi batean. Zehazkiago adierazita, laugarren hiruhilekoan, urte arteko tasa %-0,6an kokatu zen Europar Batasunean eta Eurogunekoa,

berriz, %-0,9an. Zor subiranoaren krisiak, aurrekontuak doitzeko onartu diren neurriek eta finantza arloko desorekek ekonomia erreala suspertzeko, oraingoz, gai ez den testuinguru bat osatu dute. Ekonomia jardueraren galga hori barne eskariaren ahultasunean fokatzen da nagusiki, barneko zein kanpoko desorekek ito dutelako. Gaur egun, eremu horretako kontsumoa eta inbertsioa ahultasun handi batean murgilduta daude oraindik. Ziurgabetasuna eta desoreken eta ekoizpen faktoreen doikuntza luzea dira finantza arlo krisi sakon batek uzten dituen ondorioak.

INGURUNEKO EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

	2011	2012	2011		2012				
			IV	I	II	III	IV	Urt..	Ots.
BPG erreala									
AEB	1,8	2,2	2,0	2,4	2,1	2,6	1,5	---	---
Japonia	-0,5	2,0	-0,1	3,3	3,9	0,4	0,2	---	---
Europar Batasuna 27	1,6	-0,3	0,8	0,1	-0,3	-0,4	-0,6	---	---
- Alemania	3,1	0,9	1,9	1,2	1,0	0,9	0,4	---	---
- Frantzia	1,7	0,0	1,1	0,2	0,1	0,0	-0,3	---	---
- Erresuma Batua	0,9	0,0	0,9	0,2	-0,3	0,0	0,0	---	---
Inflazioa									
AEB	3,3	2,1	3,3	2,8	1,9	1,7	1,9	1,6	2,0
Japonia	-0,3	0,0	-0,3	0,3	0,2	-0,4	-0,2	-0,3	---
Europar Batasuna 27	3,1	2,6	3,2	2,9	2,6	2,6	2,4	2,1	2,0
- Alemania	2,5	2,1	2,7	2,4	2,1	2,1	2,0	1,9	1,8
- Frantzia	2,3	2,2	2,6	2,6	2,3	2,3	1,7	1,4	1,2
- Erresuma Batua	4,5	2,8	4,7	3,5	2,7	2,4	2,7	2,7	2,8
Langabezia tasa									
AEB	9,0	8,1	8,7	8,3	8,2	8,1	7,8	7,9	7,7
Japonia	4,6	4,3	4,5	4,5	4,4	4,2	4,2	4,2	---
Europar Batasuna 27	9,6	10,5	10,0	10,2	10,4	10,5	10,7	10,8	---
- Alemania	6,0	5,5	5,6	5,6	5,5	5,4	5,4	5,3	---
- Frantzia	9,6	10,3	9,8	10,0	10,2	10,3	10,4	10,6	---
- Erresuma Batua	8,0		8,3	8,1	7,9	7,8	---	---	---

Iturria: BEA, Japoniako Bankua eta Eurostat.

Okertzeko joera orokorra da Europako ekonomia nagusi guztietan. Izan ere, Alemaniako ekonomiak moteltzeko joera garrantzitsua erakutsi zuen 2012ko azken hiruhilekoan, urte arteko tasa %0,4an kokatu arte. Apaltzeko joera horren oinarrian, ekipamenduan eginiko

inbertsioaren eta esportazioen atzerakada daude, osagai sendoak izaten baitira eta bertako ekonomian pisu handia baitute. Halaber, industriako eskariak, inportazioak eta familien kontsumoa espero zena baino gehiago murriztu ziren 2012ko amaieran. Frantzian, ekonomiaren jarduera ez zen hazi 2012ko batez bestean, eta laugarren hiruhilekoan %-0,3ko aldakuntza tasa jaso zuen. Esportazioak areagotu baziren ere, familien errenta erabilgarriaren jaitsierak, lan merkatuaren okertzeak eta enpresen igurikimen txarrek frantziar ekonomia emaitza negatibotara bultzatu zuten BPGaren hazkundera.

2009ko atzeraldian, oro har, erresilientzia handia gertatu zen Europar Batasuneko enpleguan. Hala ere, BPGaren jaitsierak lanpostu asko desagerrarazi ditu 2012. urtean zehar eta langabezia tasak gora egin du. Langabeziaren hazkundera ezberdina izan da Europako herrialde batzuetan eta besteetan, baina tasa altua eta iraunkorra daukaten herrialdeetan egiturazko arazo bat sortzeko arriskua dago, lanik gabe geratu diren langileek gaitasunak galtzen direlako. Herrialdeka, Espainia et Grezia dira langabezia tasarik gorenak dauzkatenak, 2012ko laugarren hiruhilekoan %26,0aren inguruan kokatu zirelako. Beste muturrean, Austria dago, bertako langabezia tasa %4,5etik hurbil zegoelako. Inflazioari dagokionez, kontsumoko prezioen indizea urratsez urrats moteldu joan zen hiruhilekoak aurrera zihoazen heinean eta ez da tentsiorik hautematen Europar Batasunean.

Espainiako ekonomiaren barne produktu gordina %1,9 jaitsi zen 2012ko laugarren hiruhilekoan aurreko urteko epealdi beraren aldean. Jaitsieraren bizkortzearen oinarrian nazio eskariaren narriadura handia dago. Izan ere, nazio eskariaren ekarpena aurreko hiruhilekoetakoa baino negatiboagoa izan zen eta 2009. urte amaierako mailan kokatu da. Familien kontsumoak, hirugarren hiruhilekoan erorketa batzuk aurreratu izanaren ondoren, jaitsiera erritmoa handitu zuen 2012ko azken hilekoetan. BEZaren igoerak, higiezinaren aberastasunaren murrizketak eta errenta erabilgarri gordin eta errearen jaitsierak, eta lan merkatuaren narriadurak testuinguru iluna sortu zuten kontsumitzaileentzat. Orobat, enpresariak ez zuten aurkitu 2012. urtean, eta bereziki azken hilekoetan, inbertsioko egitasmo berriak bideratzeko aukerarik. Beste aldetik, arlo publikoak ere azken kontsumoaren beherakada nabaritu zuen, eskari publikoan doikuntza garrantzitsu bat eginez, 2012ko azken laurdenean areagotu zena.

Kanpo eskariak portaera hobea erakutsi zuen, inportazioak esportazioak baino gehiago murriztu zirelako. Eurogunea, espainiar esportazioen helburu behinena baita, ahul dagoen arren, esportazioek bilakaera ona erakutsi zuten. Halaber, prezioen bidezko lehiakortasunak hoberantz egin zuen eta garapen bidean dauden merkatuetan esportatutakoaren balioa areagotzea lortu zen.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2011		2012		
			IV	I	II	III	IV
Azken kontsumoko gastua	-0,8	-2,5	-2,1	-2,0	-2,3	-2,6	-3,3
- Familien gastua	-0,8	-2,2	-2,4	-1,3	-2,2	-2,1	-3,0
- Administrazioaren gastua	-0,5	-3,7	-1,1	-3,8	-2,8	-4,0	-4,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	-5,3	-9,1	-6,0	-7,4	-9,2	-9,7	-10,3
- Aktibo finko materialak	-5,8	-10,0	-6,6	-8,1	-10,0	-10,7	-11,0
- Eraikuntzan	-9,0	-11,5	-8,6	-9,5	-11,6	-12,4	-12,3
- Ekipamendurako ondasunetan	2,3	-6,6	-1,7	-5,1	-6,4	-7,0	-7,9
- Aktibo finko inmaterialak	3,1	2,6	2,0	3,4	2,7	4,8	-0,5
Nazio eskaria (*)	-1,9	-3,9	-3,1	-3,1	-3,8	-4,0	-4,7
Esportazioak	7,6	3,1	5,8	2,1	2,7	4,2	3,2
Inportazioak	-0,9	-5,0	-4,9	-5,9	-5,2	-3,4	-5,4
BPG (m.p.)	0,4	-1,4	0,0	-0,7	-1,4	-1,6	-1,9
Nekazaritza eta arrantza	8,2	2,2	7,8	2,5	2,2	2,4	1,9
Industria	2,7	-2,9	0,2	-3,2	-3,1	-2,9	-2,4
Eraikuntza	-5,9	-8,1	-4,5	-7,5	-7,7	-8,9	-8,5
Zerbitzuak	1,4	-0,4	1,1	0,7	-0,3	-0,6	-1,2
Produktuen gaineko zerga garbiak	-5,5	-0,3	-5,9	-0,4	-0,2	-0,2	-0,5
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	3,2	2,5	2,8	2,0	2,0	2,8	3,1
- Enplegua (**)	-1,7	-4,4	-2,9	-3,7	-4,7	-4,6	-4,7

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera adar gehienek ekarpen negatiboa egin zioten balio erantsi gordinaren hazkundeari 2012ko azken hiruhilekoan. Portaera orokor horretan ezagutu ziren salbuespen bakarrak lehen arloa, informazioarekin eta komunikazioekin lotura duten zerbitzuak, eta higiezinaren jarduera izan ziren. Hala eta guztiz ere, hazkunde tasa positiboak lortu zituzten jarduera adar horiek moteltzeko joera erakutsi zuten aurreko hiruhilekoaren aldean.

Bertako jardueraren datuak negatiboak izan diren arren, Espainia nabarmendu behar da, zentzu positiboan, atzeraldian sartuta dauden periferiako ekonomien artean. Dena dela, lan merkatuaren egoerari dagokionez, Espainiak bizi duen unea Europako kontinentean nozitzen diren larrienetakoa da. Enplegu galera areagotu zen 2012ko azken hiruhilekoan eta langabezia

tasa %26,0ra igoarazi zuen. Beste aldetik, inflazioa zertxobait goratu zen laugarren hiruhilekoan, neurri handi batean, irailean indarrean sartu zen BEZaren igoeraren, botiken koordainketaren eta lehengaien garestitzearen ondorioz. Beraz, prezioen gorakada hori ez da barne merkatuaren presioaren ondorioa.

Ekonomia eta Ogasun Ministerioak argitaratu dituen datuek zehazten dute Estatuaren finantzazio beharra 40.330 milioi eurokoa izan zela abendua arte. BPG estimatuarekin alderatuta, defizita kopuru horren %3,84ren baliokidea da. Administrazio publiko guztietako defizita, berriz, BPGaren %6,74an kokatu zen.

Ekoizpena eta eskaria

Eustatek EAEko barne produktu gordinaren 2012ko laugarren hiruhilekoko hazkundearen datuak argitaratu ditu. Estimazio horietan aldaketa metodologiko batzuk sartu dira, aurreko hiruhilekoetan argitaratu ziren serietan hainbat aldakuntza ekarri dituztenak. Informazio berri horren arabera, EAEko ekonomiak %1,7 egin zuen behera 2012ko azken hiru hilekoetan, aurreko urteko epealdi beraren aldean. Hiruhileko arteko tasa, hots, laugarren hiruhileko emaitza hirugarrenarekin alderatuta, %-0,5 izan zen. Horiek horrela, atzeraldia areagotu zen iazko azken hilekoetan eta urteko batez bestean 2012ko hazkundera %-1,2an kokatu zen. 2012. urte osoan, eta laugarren hiruhilekoa ez zen salbuespena izan, barne eskariaren ahultasuna begi bistakoa izan zen eta EAEko BPGaren bilakaera lastatu zuen. Kanpo merkatuen egoera larriak ere kanpo eskariaren ekarpena beheratu zuen. Hain zuzen ere, laugarren hiruhilekoan kanpo arloaren ekarpena zazpi hamarrenekoa izan zen.

Eskaintzaren ikuspegitik, lehen arloarena eta finantza eta aseguru jarduerena izan ezik, gainontzeko jarduera adar guztien balio erantsiak behera egin zuen 2012ko urritik abendura bitarteko epealdian, urte osoan zehar gero eta narriadura handiagoko ibilbide bat marraztuz, azken hiruhilekoan areagotu zena. EAEko ekonomiaren barruko zein kanpoko testuinguruak industriaren geldotasuna ekarri du, urte arteko tasa negatiboa baita. Portaera hori are okerragoa da kontuan hartzen bada sektore horrek sei hiruhilekoz jarraian jaso dituela hiruhileko arteko tasa negatiboak. Eraikuntzari dagokionez, arlo horrek berriro erakutsi zuen balio erantsi gordinaren narriadura handi bat. Beste aldetik, zerbitzuek, oro har, okerrera egin zuten. Beherakada oso esanguratsua izan zen administrazio publikoak, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen adarrean, aurreko hiruhilabeteko emaitzarekin alderatzen denean.